Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

6105

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko aginduarena: «Agindua, 2009ko urriaren 21ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, euskal unibertsitate sistemako ikerketa-taldeen jarduerak bultzatzeko diru-laguntzen deialdia egiten duena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariari buruzko abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuko 18.2.a) artikuluak honako hau ezartzen du: «Aldizkariaren argitalpena prestatzerakoan egiten diren hutsak, baldin eta dokumentuaren edukia aldatzen badute edo zalantzak sortzen badituzte, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak zuzenduko ditu, ofizioz nahiz organo edo entitate interesdunak eskatuta».

Ondoko agindua 2009ko azaroaren 4an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 212. zenbakian: «Agindua, 2009ko urriaren 21ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, euskal unibertsitate sistemako ikerketa-taldeen jarduerak bultzatzeko diru-laguntzen deialdia egiten duena». Bertan, goian aipatu moduko akatsak egin direnez, dagokien zuzenketa egiten da ondoren:

4. artikuluan, 2009/5908 (4/15) orrialdean, euskarazko testuan, honela dioenean:

4.– Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2007ko urriaren 30eko ebazpenean, Euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerei diruz laguntzeko deialdiaren onuradunen zerrenda argitara ematen duenean, A motako ikerketa-taldeko kideen kasuan, sei urteko finantzazioa onartu bazaie, bakarrik parte ahal izango dute eskaera berri batean, baldin eta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago ikerketa-taldeko ikertzaile nagusiak idatziz uko egiten dio 2010, 2011 eta 2012ko urteetako laguntzari.

Honela esan behar du:

4.– Ezingo dute deialdi honetan parte hartu ikerketa-talde hauek: eskabideak aurkezteko epea amaitzean, 2010-2012 aldiko diru-laguntzen onuradun direnek, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2007ko urriaren 30eko Ebazpenaren arabera (ebazpen horrek euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerei 2007-2010 aldian diruz laguntzeko deialdiaren onuradunen zerrenda argitaratu zuen).

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

6105

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Orden de 21 de octubre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas para apoyar las actividades de grupos de investigación del sistema universitario vasco.

El artículo 18.2.b) del Decreto 217/2008, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones en el texto remitido para su publicación que se infieran claramente del contexto y no constituyan modificación o alteración del sentido de los documentos, pero cuya rectificación se juzgue conveniente para evitar posibles confusiones, se corregirán por la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, a instancia del órgano que haya ordenado la publicación del texto.

Advertidos errores de dicha índole en el texto de la Orden de 21 de octubre de 2009, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas para apoyar las actividades de grupos de investigación del sistema universitario vasco, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 212, de 4 de noviembre de 2009, se procede a su corrección:

En el artículo 4, página 2009/5908 (4/15), en el texto en euskera, donde dice:

4.– Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2007ko urriaren 30eko ebazpenean, Euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerei diruz laguntzeko deialdiaren onuradunen zerrenda argitara ematen duenean, A motako ikerketa-taldeko kideen kasuan, sei urteko finantzazioa onartu bazaie, bakarrik parte ahal izango dute eskaera berri batean, baldin eta eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenago ikerketa-taldeko ikertzaile nagusiak idatziz uko egiten dio 2010, 2011 eta 2012ko urteetako laguntzari.

Debe decir:

4.– Ezingo dute deialdi honetan parte hartu ikerketa-talde hauek: eskabideak aurkezteko epea amaitzean, 2010-2012 aldiko diru-laguntzen onuradun direnek, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2007ko urriaren 30eko Ebazpenaren arabera (ebazpen horrek euskal unibertsitate-sistemako ikerketa-taldeen jarduerei 2007-2010 aldian diruz laguntzeko deialdiaren onuradunen zerrenda argitaratu zuen).